Euskal itzaldi, liburu, ta abar

Nun-nai be, eusko biotzak alkar jo. Urtarrillaren 25'an, Bartzelona'n bizi diran euskaldunak euren len-billera egin eben: askotxo ba dira andik be, eta alkar ezagutzea egoki izan. Batzar ori eratu ebana Botanz'dar Xabier Mari karmeldarra. Etxarri-Aranaz'ko semea izan zan. Oraindik gazte dogu berau, irugarren Teologi urtea ikasten diarduana. Napar kementsu onen antzeko asko ba'lira baztarretan, gure ele zarra bai biztuko litzakela!

Batzar aretan egin ebena, mamiñez beintzat, emen jartea ondo deritxagu. Beste askorentzat be eredu ta suspergarri beite areik egiña.

Xabier Mari karmeldar gazteak egin eban len-itzaldia. Ta onela mintzatu zan: «Au da billera onen elburu: elkar ezagutu ta euskera zabaldu. Gaur ongi dakusgu, gure izkuntza erosoaldi latzean bizi da. Eta bakoitzak zer egin al bestean eutsi ta gure artean berriz zabaltzeko? Euskera bera dijoala, ta nortzuk dute onen erru? Denok, baiña euskal sendiak bereziki. Esames gaizto aski sartu dira gurean: euskerak ez dula ezertaraka balio, nainon erderaz mintzatzen diralа... Eta zori txarrez, neskarik asko lotsa dira euskeraz egiten. Anek, ordea, biarko amak izango, etu beren semeeri euskeraz irakasten ez ba'diete, nork egingo du?... Eskoietan ere jarri bearko lukete gure gramatika, ta erderarekin batera euskera ere ikasi, bestela nola irakurri euskal liburuak? Badaukagu danendako lana: apaizak eta prailleak elcizan; maixuak eskoletan, musikalariak musikan; alkateak udaletxean; festetan euskal kirolak, bertsolarien nergeiagokak, eta abar... Espaiñi'ko edergailiu edo monumeuturik ederrena euskera dula sarri entzunda daukagu. Gorde dezagun, ederguilluak gorde oi diran bezela».

Bigarren itzaldia Mindegia'tar Mikel Mari karmeldarrak: oso sakon eta aukerako, onek be. Irizar domingarrak aurkeztu. Azkenean, irurak entzun ebezan txalo ta eskuzarta luze-berak. Onderen bost euskal kanta abestu ebezan: *Maite, Edurra, Ostian bizi zare, Aurtxo polita ta Boga, boga.* Ta amaitzeko, esku-jokoak, bata baiño bestea polit errigarriagoak. Ango barri-emailleak esan atzenez: «Bi ordu ta erdi egon giñan billeran. 30 giñan guztira. Jendeak gozo ebarra igaro omen zun; beste eguna berriz ere biltzeko asmoekin gelditu ziran gustiak. Noiz izango dan jakin ez; baiña Pazkoetan egingo degula, uste det».

ITUN ZAR ETA BERRIA.—Idazpuru-dutela euskeraz argitaldu berriak dituzte Idazti Deunak. Pozgarria benetan euskaldun guztiontzat! Orain arte ez bait-genukan euskaldunok, ain Jaungoiko-zale ta ere, katolikoak egindako liburu santuen ederalbenik. Protestanteak egindakoak ba-genituen bein eta berriz ere argitaldu katolikoak egiñik, zati batzuk besterik ez.

Aita Olabide jesulagun gaizteiztarrari diogu mesede aundi ori. Eta igarotako urtellaren 15'an, Gasteiz'en, egin zitzaion omena ongi irabazia zeukan noski. Naiz-ta biotz-beroz aipatu dute Idazteunaren ederatze au. Eta merezi ere bai du, oso ondo egin, bikain eta bereziki egiña dalako. Aurtartean goratzarrerik gartsuena egon dituen EUZKO GOGOA degu: Olabide'ri eskaintzio onek banako oso bat, euskal idazleen onenen lanak bertan bildnaz. Irakurtzeko ere, barako ori, ots. 1958'ko 5.6'garrena, ta etzeru damutuko.

ORBELAK.—Aspaldi ez-ta, aurten argitaratu yaku olerki-liburu barri bat: Arantzibia'na. Zarautz'en, Itxaropena'k argitaratu zuna. Oindiño be poesi-kontuetan? diñoke batzuren batek. Bai, orrelaxe da: ta ez dakigu edozelango olerkaria be. Lekuoneetan, orrak onela itzaurrean: «Kerexeta'tar Jesus'ba. Arantzibia, olerkari-olerkari degu bat-te. Orrekin, esana dago nolako olerkari egingo dituan. Gaur dan egunean Euskaldunoitzen diran bezelakoak... Eta ezin ukatu ere: gure Arantzibia'ren poesiari. Poesia dariola lau aldetatik. Gure garaiko gure mendi-usai; eta odoldio eze bagenu kapean... Argiz, berriz, argi xamur, argi berreko, intoez lusti, larrosa-koloreko lari... gazte».

Sukalde epelezu egon zagozanerako, ta kurle, onu emen libura txanbeliña. Zuri-ezilleari lez, irudimena arrotu ta ibiltzeko dantzu, urrean.

KARMEL-zuzendari yaunari

Salta'tik 1959-IV-9 an

Aberkide ta lekaidekide maite:

Ludi onenak egin daunela, sitsak yota ezeze, ezada be ba-dagoela txitean-pitean enzungo dozu bastarretan. Egia ete? Bai, zerbait: Ludi onetan ba-dago oraindik biotz onik; eta izan be, niri Irailla-Yorraillako KARMEL aldizkaria bidali daustena biotz oneko danik ezin ukatu. Ner ete da? Nik ezin igarri. Bear ba'da, ni ak ezagun be esau, ta a ta guzti be nitaz oroitu ta aldizkaria bidali egin daust nire zuzenbidea dakanari ekatuta. Nire eskerrik berocnak ere ezgilli-ezzagun orreri, ta bego luzaro ludi onetan. Ludi au galdurik dala diñoenak gorutztzeko, besetarako ezpa'da be.

KARMEL aldizkaria burutik asi ta azkenazkeneraño irakurri dot, eta adi-adi irakurri be, ta ez ute izan okadarik eragin daustanik. Bai, sera! Aldizkari eder-bikaña ateraten dozue. Ingia, ederra; gayak, ugari: idaz-lanak arrisldeetan egokiz banandu ta eratuta; lanik geyenetan marrazkitxo atsegingarriak be bai; lanak laburrak, irakurleak gai bateguz gogaitik egin ezteagian: ardiak be bedar bateri ekin eta ekin ibilli-barik, askotarikoai eltzen dautse, sakilla bateteko: olangoton yatzuz irakurleak be, ta zuk igarri orixe be: igarri ta egin, irakurleari ruki asko emonda.

Ekin gu lango urteetan aurreratuentzak txikizuna, baña irakurlerik geyenak gazte izango diranta, ori eta akats andirik: gu-nera, izki txikin erabilliazkero, toki berak gai geyago artu, ta au aldi onetan landerrentzat gogotan izangarri yatzu benetan. zuak aberats zarienik ezlot uste-ta.

Idazleen artean be erreskada polita agiri da. Erreskaden gauza lut da ta gaitasuna bestetik. Gaitasuna yatzu beñena ta onetan zelau gabilte? Poza eztitan yarri naz bederen KARMEL irakurri-ala: gai bakotxa ederra erabilita ta euzkera goza-bikaña idazleona. Beti ta nainon yazoten dana: batzuk aire: batzuk santan ta erin, beste batzuk txiz yantzita ta itz-angaringo. Guztitariko azle tzelenak dauz zure beudean eta idazkide ori arrokizuna yatzu.

Lanok irakurri-ala, bein edo bein musterra asau okertu nan yat neuk gura eztodala, an-or-emen okerren bategaz trikitx eginda: neuk gura eztodala esan dot eta beren-beregi esan be: eta izan be, Erroma'tar idazle entzute andiko Orati'k aiobaten diñoanez, idaz-lanak or orren baten baztartuta euki bear ei doguz gero ostera be eskuetaratu ta aztertzeko, bitartean gure semeesalabak diriana aztu dakigun-edo. Bai ba, amak eztau ikusten seme-alaben akatsik, edo ez ikusi-arena egiten dau.

Ardiak bedarra zoli ta arin yaten dau, ta yun-ala ametxorrira bidali, gero ausmer egiteko: zaldiak, ostera, astiro ta geldo, gero ausmer egiterik eztauelako. Bein ametxorria leteazkero, ardia eroso ta nayezaz etzaten da lurrean, eta aldiko agokadatxoa ametxorritik agoratuta, astiro-astiro daragoio ausmer, massallai batera ta bestera eraginda, ta yarten dau, andik-ara barrien-barri lengoxea agokadea ze-ze egindakoan urdallara-bidean egiteko.

Aldizkari-idazleak, geyen batzu, ardiak bedarra yaten dauen lez, bizkor eta aringa ibatzi bear izaten dabe, baña ausmerrik egiteko astirik ez, eta olan arako Orati'ren onua ezin bete, ta euren lanak orraztu ta txukundubarik, dagozan legetxe bidali bear izartegira.

Idoro izan dodazan utsak gora-bera, euzkera goza-mamitsu ta txukuna aurkitu dot aldizkari orretan. Ba-genduan olango aldizkariren bearrik eta ateraten dabenak ondo guragarri ta txalogarri yatzuz. Ba-dau gure euzkeraak olango zerbaiten bearrik. Eztozue iñoren aurrean lotsatu-bearrik. Nik ludiko menditarte urrin onetatik txapela eskuetan dodala agur eta txerarik biotzetikoena egiten dautzuet bai zuri, bai idazle-talde bikain orreri. Aurrera, mutillak, gogatsu ta adoretsu. Ekin eta ekin, kikiltzeke. Bakotxak begi al dauentxoa ta gurendea geurea izango da. Beranduegi ez ete dan? Nok diño olangorik? Epelak eta geldoak. Gura ba dogu, bizirik yarraiko dogu: gura izatea da dana.

Agur, maitenok, yarrai zu ta gur. Eztagiela iñok esan gero guk ez genduala egin al eta bear geradusana.

Larrakoetxea'tar Bedita